

Eraikuntzaren kostuak % 0,5 igo dira Euskal AEn 2023ko azaroan

Urtetik urtera, 2023ko azaroa 2022ko azaroarekin alderatuta, prezioen igoera % 3,9ra iritsi da


Eustaten datuen arabera, eraikuntzaren kostuen indizea % 0,5 igo da Euskal AEn 2023ko azaroan, aurreko hilarekin alderatuta. 2022ko hil berarekin alderatuta, kostuak % 3,9 igo dira.

Eraikingintzako kostuak % 0,4 igo dira, eta Obra Zibilekoak, berriz, % 0,7. 2022ko azaroarekin alderatuta, prezioak % 3,9 igo dira Eraikingintzan, eta % 3,7 Obra Zibilean.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasak sektoreka

Ehunekoa

Indize orokorra Eraikuntza Obra zibila



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilarekin (2023ko urriarekin) alderatuta, **lehengaien** kostuak % 0,4 igo dira, eta **eskulanaren** kostuek, berriz, ez dute aldaketarik izan. Urtetik urtera, lehengaien kostua % 4,4 igo da, eta eskulanaren kostua, berriz, % 2,1.

Lehengaien kostua % 0,5 igo da hiletik hila Eraikingintzaren sektorean, eta % 0,9 Obra Zibilean. Urtetik urterako bilakaeran, Eraikingintzako lehengaien kostuak % 4,5 igo dira, eta Obra Zibileko lehengaienak, berriz, % 4,1.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza- tasak (p). Azaroa 2023

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	126,7	0,5	3,9
Eraikinak	125,9	0,4	3,9
Obra zibila	130,0	0,7	3,7
Lehengaiak	129,0	0,6	4,4
Eraikinak	128,0	0,5	4,5
Obra zibila	133,4	0,9	4,1
Laneskua	119,1	0,0	2,1

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Abenduaren 27a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektorean kontsumitutako lehengaien prezioek honako azpisektore hauetan izan dituzte igoyerarik handienak 2023ko azaroan, 2022ko azaroarekin alderatuta: *Mineral ez-metalezkoak* (% 11,6), *Kautxua eta plastikoa* (% 10,4) eta *Altzarien fabrikazioa* (% 6,3). Bestetik, sektoreko lehengaiak diren produktuak produzitzen dituzten azpisektore nagusi hauetan jaitsi dira prezioak: *Energia elektrikoa eta gasa* (% 25,8ko jaitsiera), *Petrolio* *fitntzea* (% 13,2ko jaitsiera) eta *Industria kimikoa* (% 6,6ko jaitsiera).

Euskal AEn kontsumitutako lehengaieiaren prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p) . Azaroa 2023

	m / m-12
Ezmetalezko meak	11,6
Zuraren eta kortxoaren industria	-1,2
Petrolioaren fintzea	-13,2
Industria kimikoa	-6,6
Kautxua eta plastikoa	10,4
Produktu mineral ez-metalezkoak	5,2
Metalgintza	-1,1
Metalezko artikulatuak	1,9
Material elektronikoa	4,7
Material elektrikoa	3,0
Makineriaren fabrikazioa	4,9
Altzarigintza	6,3
Energia elektrikoa eta gasa	-25,8

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2023ko Abenduaren 27a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62